

# URONDOKO TXOKOAREN ERABILERA ARAUAK



- 1.- Erretserbak Gatikako Kultur Etxean (Udal Liburutegian) idatziz egingo direz. Eskaera posta elektrotikoz be egin leiteke, [kulturetxea@gatika.eus](mailto:kulturetxea@gatika.eus) helbidera eskakizuna bialduz. Ezin da eguna gorde hilabete bat baino lehenago. Ezin da telefonoz eguna gorde.
- 2.- Erretserba egiten dan unean, dagokien tasak ordaindu behar direz. Eskaerak ez direz burutuko ordaintzen ez dan arte. Tasak eskudirutan ordainduko direz Liburutegian edo Kutxabank sukurtsaleko (2095-0055-61-2055000103) kontuan sartuko direz, eskatzailearen izena esanez.
- 3.- Eskaera egiten dauen pertsona Gatican erroldatuta egon behar da, eta hamazortzi urte baino gehiago izan.
- 4.- Eguna gorde eta edozein arrazoi dala eta tokia ez daba erabiltzen, dirua ez da itzuliko.
- 5.- Giltza Udaletxean hartuko da gordetako egunaren aurreko astean. Eta lehenengo behar-egunean Udaletxera itzuliko da.
- 6.- Tokia erratsaz garbituta eta txukun lotu behar da. Koilara-sardeskak eta platerrak bertan dagozan plastikuzko kutxetan eta uretan itxi behar direz uretan. Ezin da utzi janari edo edaririk lekuan. Ganera, zaborra atera behar da.
- 7.- Eguna bazkaria egiteko gordetzen bada, seigarren araua egun bereko 19:30 baino lehen bete behar izango da, afariko txadakoek lekua txukun euki dezaten.
- 8.- Mahai-zapiak, eskuzamauak, koilara-sardeskak, platerrak, argia, gasa, tresnen garbiketa eta lekua Udalak ipiniko dauz.
- 9.- Zeozer apurtzen bada, ahalik eta arinen esan behar kajo Udalari.
10. Eskaera egin dauena tokian egon behar da beste erabiltzaileran bat bertan dagoen artean.
- 11.- Tresten funtzionamendu edo lekua erabilerari buruzko ohar guztiak errespetauko direz.
- 12.- Erabileraren arauai xehetasun gehiago jakiteko, begiratu tokian dagoen ordenantzaren kopia edo Gatikako Udalaren web gunea ([www.gatika.net](http://www.gatika.net))

Gatika, 2017ko urtarrilaren 10a

**Gatikako Udala**

